



## LEZOKO UDAL MUSIKA ESKOLAKO IKASKETA-PROIEKTUA (SINTESIA)

### HELBURUAK MAILEN ARABERA

Tomas Garbizu Lezoko Udalaren Musika Eskolan ematen diren ikasketak “nabarmenki praktikoak” dira, ikasleengan instrumentu eta ahots-taldeetan parte-hartzeko interesa bultzatzeko helburu nagusiarekin.

Musika Eskolak eskola-ekitaldien zein eskolaz kanpoko ekitaldien programak sustatzen ditu, eta musika bizitzeko modu hori garatzea eta partekatzea bilatzen du, Lezoko eguneroko kultura mugimenduan parte-hartuz.

Tomas Garbizu Lezoko Udalaren Musika Eskolaren ikasketak lau mailatan banatuta daude, 289/92 dekretuaren 4. artikuluan begietsita dagoenez.

Mailak hauexek dira:

- 1. maila edo harrerako maila, 4 eta 7 urte arteko umeentzat, gutxieneko mailarik gabe.
- 2. maila edo hasierako maila. 8 urtetik aurrera, adin-mugarik gabe.
- 3. maila edo gotortzeko maila. 2. mailako helburuak gainditu eta gero.
- 4. maila edo lehentasunezko jarduera-maila. Gaitasun mugarik gabekoa, maila horretan dauden ikasleek Eskolako talde batean parte hartzeko interesa erakusten dute.

Horretan oinarrituta EHP-ren helburuak aztertu, lehenetsi eta helburu operatiboetan sintetizatu dira, ikasgelako programazioa eta ekitaldiak garatzeko orduan esanguratsuak izan daitezten.

MAILA	EHP-ren AZALPENA	HELBURU OPERATIBOAK
I	<p>Heziketa arlo hau 4 eta 7 urte arteko umei zuzenduta dago bereziki, konpentzia-mailarik gabe.</p> <p>Umearen nortasunaren garapen orekatua bultzatuko du, soinu-jarduera eta jarduera higiarazlearen bitartez irakasleekin zein gainerako ikasleekin izandako harremanari esker.</p> <p>Norberaren kontzientzia hartuko du, bere buruarekin zein ingurukoekin harmonian bizi den izaki bezala.</p> <p>I. Maila edo harrerako maila 3 ikasturtetan eta klase kolektiboetan antolatuta dago.</p> <p>Kurtso honetan ikasleen promozioa automatikoa izango da. Ikastetxeak I. Maila egiaztatzen duen diploma emango dio ikasleari.</p>	<p>Musika ikasteaz gozatzea, lan egiteko dinamikak eta ohiturak sortuz.</p> <p>Garatzea umeengan zentzumenen eta afektibitatearen ahalbideak, baita intelektualak, fisikoak eta sozialak ere.</p>
II	<p>Maila honetan ikasleak hasten dira integratzen musika-tresna musika adierazteko bere gaitasuna garatzeko muina bezala. Muga bakarra da ikaslearen interesa, lana eta norberaren gaitasuna, eta ikasleak ahal du sakondu musika-tresnaren irakaspenean zein taldekoan.</p> <p>Eskuratu beharreko <b>gaitasun-maila honi esker</b>, ikaslea eskolako maila honetako edozein musika-taldetan modu egokian integratzeko gai izan beharko da.</p> <p><u>Mailaren promozioa ikasleak curriculumean oinarritutako helburuak gainditu dituztenean izango da; orduan</u>, Eskolak II. Maila hori egiaztatzeko agiria emango dio.</p> <p><b>II Maila</b> edo hasiera maila honek 4 ikasturtetan banatuta dago</p>	<p>Ikaslearen berezko nortasuna eta sentsibilitatea garatzea.</p> <p>Norberaren musika-tresna eta bere aldaerak, familiak, jotzeko mekanismoak eta zainketa ezagutzea.</p> <p>Musika jotzen disfrutatzea, bai banaka zein taldeka, eta baita disfrutatzea musika entzuterakoan eta pertzepzio artistikoarekin ere.</p> <p>Ikasteko ohiturak sustatzea ikasteko teknika egokien bitartez.</p>



<p><b>III</b></p>	<p>Maila honen bitartez (<u>gaitasun-maila</u>) ikasleek Eskolako talde ezberdinetan integratzea bilatzen da.</p> <p>Horretarako, ikasleek <b>musika-tresnak jotzeko gaitasuna</b> eskuratuko dute eta, horri esker, ikaslea autonomiarekin integratu ahal izango da ikastetxeko edozein musika-taldetan, hau da, espezialitateko irakaslearen jarraipenaren beharra izan gabe.</p> <p><b>III. Maila edo gotortzeko maila</b> honek 6 ikastarotan antolatuta dago.</p> <p><u>Mailaz igotzea</u> ikasleak curriculumean aurreikusitako helburuak betetzen dituen izango da; orduan Eskolak III. Maila egiaztatzen duen diploma emango dio.</p>	<p>Ikaslearen berezko nortasuna eta sentsibiltatea sendotzea.</p> <p>Baliabide adierazkorrak, interpretatiboak eta teknikoak handitzea, eta horietan sakontzea.</p> <p>Musika jotzeaz gozatzea, banaka zein taldeka, eta baita disfrutatzea musika entzunez eta hautemate artistikoarekin.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lan egiteko eta ikasteko teknika batzuk garatzea, edukiei egokituta.</li> </ul> <p>Berezko autonomia lortzea, ikaslea bere interpretazioan ongi moldatzeko.</p>
<p><b>IV</b></p>	<p>Maila honetan bilatzen diren helburuak dira, batetik, taldeen praktika lortzea eta, bestetik, Eskolan dauden “sendotutako” talde ezberdinak egonkortzea.</p> <p>Maila honen kompetentziak muga bakarra izango du, ikasleak berak helburutzat hartutako interesa, lana eta ahalmena, alegia.</p> <p>Maila hori gainditzeko ikasleak curriculumean ezarritako helburuak bete beharko ditu; hori lortzen duenean, Eskolak IV. Maila egiaztatzen duen diploma emango dio.</p>	<p>Talde- interpretazioaz gozatzea publikoaren aurrean.</p> <p>Sozializazioa bultzatzea, taldeetako lanaren inguruan bizipenak, esperientziak eta abar eskuratuz.</p>

## **METODOLOGIA**

Atal hau irakasle bakoitzaren oinarriaren arabera garatzen da, eta estrategia ezberdinak erabiltzen dira proposatutako hezkuntza-helburuak lortzeko asmoz.

Jarraian estrategia horietako batzuk azalduko ditugu; izan ere, horiek dira eskolan erabiltzen direnak, eta ikasleen adina, espezialitate eta interesen arabera egokitzen dira.

- **Ikasteko ereduak. Imitazioa.**

*Imitazioa ikasteko eredutzat hartzen da ondo mimetizatzen direnean.*

- **Irakasle eta ikasleen interpretazio bateratua.**

*Irakasleak, klasean, musika-lanak ikasleekin batera jotzea ekartzen du.*

- **Sormenaren garapena**

*Asmatzea garatzeko estrategiak garatzearen inguruko lana da, sormena eskema baten arabera edo ildo berri batzuetatik abiatuta.*

- **Ikasteko ohiturak eta diziplina lantzea.**

*Hainbat estrategia eta lan/ekitaldien proposamenak lantzea, ikastea errazteko eta, aldi berean, ikasteko ohiturak sortzen laguntzeko.*

- Ikasle bakoitzaren interesak kontuan hartuta lan egitea, ikasleen artean norbanakoari dagokion ikastea motibatuzko helburuarekin.



- **Autonomia garatzea**

*Ikaslea autonomoagoa izan dadin lortu nahi da lan horren bidez, arazoak konpontzeko, informazioa eta baliabideak bilatzeko eta ikasteko berezko ohiturak sortzeko gai izan dadin, alegia.*

- **Lana gurasoekin (Inplikazioa hezkuntzaren barruan)**

*Irakasleek gurasoekin egiten duten lana dakar, eta lan hori ezberdina izan daiteke gurasoen inplikazio-mailaren arabera; inplikazio hori oso positibotzat jotzen da ikaslearen garapenerako bi aldeetatik.*

- **Ekitaldiak - Entzunaldiak - Kontzertuak**

*Agerraldiak publikoaren aurrean. Entzunaldiak aipatzen ditugunean eskolan egiten diren entzunaldiei buruz ari gara hitz egiten, non publikoa kanpoko edota eskolako ikasleek osatua izan daiteke.*

## **EBALUAZIOA**

Lezoko Tomas Garbizu Musika Eskolan ematen den irakaskuntza ez arautua da, eta horrek esan nahi du ebaluatzeko orduan modu irekia, malgua eta eraikitzailea erabili behar dugula.

Ebaluazioa zeharo lotuta dago helburu operatiboekin eta erabilitako metodologiarekin.

Musika Eskolako irakaskuntza-ezaugarri bereziei esker, ikasleen ebaluazio jarraitua egin dezakegu, euren ikaste-prozesuari dagokionean.

Prozesu horretan erabiltzen ditugun estrategiak hauek dira:

- Ekitaldiak aztertzea (eskolakoak, eskolaz kanpokoak, entzunaldiak, kontzertuak...), bai jotzaile bezala zein publikoaren ikuspegitik.
- Eguneroko edota aldizkako kontrolak eta behaketak.
- Komunikazioak gurasoekin eta ikasleekin.

Estrategia horien bitartez hobetzeko jarraibide batzuk eman nahi dizkiegu ikasleei, euren garapen artistikorako zein norberaren garapenerako ere lagungarriak izan daitezen.

### Oharra:

- Ikastetxeko Pedagogi Proiektuari buruzko argibide gehiago nahi izanez gero, informazio guztia eskuragarri dago [www.lezo.net](http://www.lezo.net) web orrian, eskolako bulegoan eta baita Musika Eskolako solairu guztietan dauden iragarki-tauletan ere.
- Espezialitate instrumental bakoitzeko programazioa (2.Maila), espezialitate bakoitzari dagokion metodologian barne daude. Arrazoi ezberdinengatik hauek ez baleude, interesa duen orori banatuko zaio komunikazioetan (3.mailakoak barne).



**“TOMAS GARBIZU” LEZOKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA  
IRAKASKUNTZA LAUKIA**

**I. MAILA → TITULOA: MUSIKA ETA MUGIMENDUA 3. (GAI)**

Kurtsoak / Cursos	Kreditoak Creditos	Ikasgaiak	Saioak-Denbora Sesiones-Tiempo	Asignaturas
1. / 1º (4 urte)	1	M. eta Mugimendua	1 (60´)	Música y Movimiento
2. / 2º (5 urte)	1	M. eta Mugimendua	1 (60´)	Música y Movimiento
3. / 3º (6 urte) eta 7 urte berriak	1 1	M. eta Mugimendua Talde Korala	2 (60´)	Música y Movimiento Conjunto Coral

**II. MAILA → TITULOA: (12 KREDITOAK) → 4 TRESNA + 4 M.MINTZAIRA + 4 TALDEKOAK.**

1.-2. Kurtso 1º-2º Curso (7 eta 8 urte)	1/Kurtso	Tresna	1 (60´)	Instrumento
	1/Kurtso 1/Kurtso	Musika Mintzaira Talde Korala	2 (60´)	Lenguaje Musical Conjunto Coral
3.-4. Kurtso 3º-4º Curso (9 eta 10 urte)	1/Kurtso	Tresna	1 (60´)	Instrumento
	1/Kurtso	Musika Mintzaira	2 (45´)	Lenguaje Musical
	1/Kurtso	Talde	1 (60´)	Conjunto
AUKERA/OPTATIVO	1/Kurtso	Hezkuntza Mus.1.-2.	1 (60´)	Educación Musical

**III. MAILA → TITULOA: (24 KRED.) → 6 TRESNA+ 6 TALDEAKOAK + 12 K. II MAILAKOAK.**

5.-6.-7.-8.-9.-10. Kurtso	1/Kurtso	Tresna	1 (60´)	Instrumento
	1/Kurtso	Talde	1 (60´)	Conjunto

**IV. MAILA → TITULOA (28 KRED.) → 14 KREDITO TALDEKOAK**

11.-12.-13.-14. Kurtso	1/Kurtso	Talde	1 (60´)	Conjunto
---------------------------	----------	-------	---------	----------